


Hitzatzea

Paperean hegan

Patxi Zubizarreta



2012ko abuztuaren 24ko data gogoangarria da, dagoeneko, Galtzagorri elkarteko ki-deontzat. IBBYko bi urtez behineko biltzarra Londresen burutu zen –*Crossing boundaries: translations and migrations*– eta han adeitsu eta ezin profesionalago hartu gintuzten. Gogoan dut, kezka eta jakin-mina aurpegietan, ezustean, Imperial Collegeko areto nagusian agertu ginela. Orduan, bi iritzi kontrajarri nagusitu ziren partaideon artean: ez, agertoki hura inondik ere ezin zen guretzat izan; bai, zergatik ez? Egitarauan gure proposamena aintzat hartzea eta nabarmentzea lortua genuen, baina hortik aurrera...



Halako biltzarretara mundu osoko jendea inguratzen da: editore, aditu, liburuzale, idazle, ilustratzaile... (kontuan izan aurten Anthony Browne izan dela kartelaren egilea eta artista gonbidatua). Jende asko, bai —eta gehienbat emakumeak, dena esate aldera—, haur- eta gazte-literatura gogoko izan, eta bultzatu nahi dutenak. Eta gu halako bilkura batera agertzekoak ginen, galtzak bete ilusio, galtzak bete galtzagorri. Olinpiadak igaro berri, ez ginen lehiazera hurbilduko, baizik eta nor garen eta, batik bat, urte askoren poderioz zer lortu dugun eta zertan gabiltzan erakustera. Eta hori guztia ordubetea eskaintzea nekeza denez, opari osagarri gainezka joango ginen, maletak bete dvd eta liburu.

Zenbat lagun hurbilduko zitzaizkigun misterio izanagatik, asko izatekoak ginen jendaurreko ekitaldi nagusiko partaideak. Gema Arrugaetak Euskal Herriaren halako ikuspegi zabal bat bistaraziko zuen, geografikoa eta humanoa, gure tiki eta nerabeen erakusgarri —gero eta azal kolore gehiagorekin—. Maddi Oihenarteren ahaireek jantzi egingo zuten irudien atala, eta jolas nahiz sehaska kantuak ere aineratuko zituen —Saizarbitoriak dioen bezala, «zin dagot belusezko ahotsak existitzen direla»—, eta, bai



irudi eta kantuak bai testuak, Joserra Senperenaren piano nota enaratsuek bilduko zituzten. Eta zerbait bizia eta erakargarria nahi genuenez, Jokin Mitxelena arduratuko zen unean uneko poema eta istorioak bat-batean ilustratzen, irudiak hutsetik harrigarriro sortzen. Nirea, batez ere, gidoia-
ren ardura izango zen, eta ezin uka horrek ezintasuna eragiten zidala, euskal haur- eta gazte-literatura nekez laburbildu baitaiteke hain tarte laburrean. Hala ere, denon artean, saiatu, saiatuko ginen. Eta hasi, esate baterako, Harkaitz Canoren testu honekin hasiko ginen:

«Gure aitonak beti esaten du masustak ezkutatu egiten direla sasi artean; eskuarekin sasiak pixka-pixka bat apartatu eta orduan bai, orduan topa-
tzen direla masustarik mardul eta goxoenak, hostoen azpian ezkutatuta bezala. Gure herriarekin ere halaxe gertatzen da. Herri txikia da, pixka bat ezkutuan dagoena, baina errepide nagusia sasia bezala apartatuz gero, han aurkituko duzue. Masusta goxo bat bezalakoa da gure herria».

Horra gure asmoa: tradizioaren eta literatura modernoaren masusta edo testurik goxoenak eskaintzea; gure erroak, gure hegoak. Eta biltzarraren gaia migrazioak izanik, jarraitu, esate baterako, Usoa, hegan etorritako



neskatoa ipuinarekin edo Kirmen Uriberen *Nire ispilua* poemarekin jarraituko genuen:

Etorri zaitez hona, ttikia.
Para zaitez zutik nire aldamenean.
Zenbat hazi zaren ikusteko ispiluan.
Botada ederra egin duzu ostera ere.
Doi-doia ez nauzu harrapatu.
Laster duzu nire garaiera.
Ez dugu inola ere elkarren antzik,
zure begiak argi-argiak dira,
nireak berriz gaua bezain ilunak.
Urruneko arraza batekoa zara.
Baina konturatu ondo, bera dugu begirada.
Zeinek esango dit, laztana,
ez zarela nirea.
Begirada berbera dugu-eta,
ez zarela nirea.



Baina gaia itzulpena ere bazenez, gure dohainak baliatuko genituen eta esaldi batzuk Jokin Mitxelenak alemanez eta Maddi Oihenartek frantsesez irakurri zituzten, nik euskaraz eta gaztelaniaz, eta uneoro Idoia Noble cicerone bikainak ingelesez. Itzulpena, hau da, bestearekiko interesa eta komunikatzeko gogoia.

Esan bezala, gure HGL laburbildu ezinik, proiektu osagarri bat eramango genuen. Aitziber Alonso eta Izaskun Jauregiren laguntza ezinbestekoarekin –eta Lore etengabe bulegotik–, mahai batean euskarara itzultako literatura unibertsaleko hainbat lan egongo ziren –tartean Alice, tartean Pinotxo...–, baina baita euskaratik hainbat hizkuntzatar itzultako liburu asko ere: ingelesera, alemanera, eslovenierara, arabierara... Eta, horrekin batera, liburuak eramango genituen; gure ekitaldira hurbilduko zen pertsona bakoitzari Manu López eta Xabier Etxanizen *Literatura infantil y juvenil vasca contemporánea* lan zabala eta panoramikoa eskainiko genion, eta Itziar Zubizarretak zuzendutako dvd-a, hain zuzen ere gure saioari izenburua emango ziona, eta hamar idazle eta ilustratzailearen masustarik ederrenak eskaintzen dituen. Ez baitugu sinesten imajina batek mila hitzek baino



gehiago adierazten duela eta, aitzitik, konbentzimendua baitugu hitz batek sujeritzeko indar handiago eta biderkatzaileagoa duela irudiekin, ahotsekin, musikarekin lagundua baldin badator. Horra gure erregaliak, garenaren erakusgarri.

Hori guztia eskaini nahi genuen, eta hori eskaini ahal izan genuen, hain zuzen ere hasieran ikusitako areto puskan, berrehun bat lagunuen aurrean, zer gertatuko zen ez genekiela... Eta hasi bezain laster konturatu ginen gure proiektuak funtzionatu egiten zuela; eta, urduritasunak urduritasun, une gogoangarria bizitzen ari ginela. Konturatu al zarete txaloek hegalean antzeko hotsa ateratzen dutela? Zapla-zapla-zapla: paperean hegan. Eta kontzienteago izan ginen azken urteotan asko aurreratu dugula, erroak ditugula hegal eta, funtsean, bagarela nor. Eta argiago ulertu genuen gure literaturak aurrera egingo badu, halako talde heterogeneo bezain gogotsu bati esker lortuko duela: idazle, ilustratzaile, editore, bibliotekari, irakasle, liburu saltzaile, liburu zale, irakurle, elkarte, kultur teknikari... (Joko Olinpikoak berriro ere hizpidera ekarrita, ikusi al zenuten irekiera



ekitaldian haur literaturak zer nolako presentzia izan zuen?: Alice, Peter Pan, Joanne Rowling ere bertan zen...).

Etxepare Institutuko Marijose Olaziregi ere ekitaldian izan zen, biltzarrean partaide eta gurearen ikusle eta bultzatzaile—kasualitate, kausalitate eta sinergia asko, finean—, eta harekin, harenekin behar bezala ospatu genuen gure saria: gure literaturaren berri emateko eskaini zitzaigun aukera; eta besteena: Biltzarrean zehar, aurtengo IBBYko Ohorezko Zerrendan sartu ziren Miren Agur Meaberen *Mila magnolia lore* eta Ainhoa Irazustabarrena *Zein polita den Panama* itzulpena. Horrexegatik guztiagatik da, dagoeneko, gogoangarri, 2012ko abuztuaren 24ko hura, hain zuzen ere, erroak hegal bihurturik, paperean hegan egin ahal izan genuen eguna.


Vuelo de papel

Al poco de celebrarse las Olimpiadas, la asociación Galtzagorri—con el apoyo del Instituto Etxepare y la OEPLI—participó en el Congreso de IBBY Crossing boundaries: translations and migrations con el espectáculo titulado Vuelo de papel; pero no para competir, sino para mostrar los avances conseguidos durante los últimos años en el campo de la literatura infantil y juvenil en euskara. Convencidos de que una imagen no vale más que mil palabras, sino de que una palabra—Patxi Zubizarreta e Idoia Noble—es más sugerente si va acompañada de una ilustración—Jokin Mitxelena— o una fotografía—Gema Arrugaeta— y una canción—Maddi Oihenart y Joserra Senperena—, con la ayuda de Aitziber Alonso—presidenta de la asociación— e Izaskun Jauregi, se ofreció una performance inolvidable dirigida a los participantes llegados de todo el mundo. Conscientes de la dificultad de mostrar nuestra situación actual en una hora, se dispuso una exposición de libros traducidos del euskara a otras lenguas y se ofrecieron el dvd Vuelo de papel creado por Itziar Zubizarreta y el libro de Xabier Etxaniz y Manu López titulado Literatura infantil y juvenil vasca contemporánea.

Flying in Paper

Shortly after the Olympic Games were held, the Galtzagorri association—with the support of the Etxepare Institute and the OEPLI—participated in the IBBY Congress Crossing boundaries: translations and migrations with the show entitled Flying in Paper; the aim was not to compete, but to show the advances that have taken place in recent years in the field of literature in Basque for children and young adults. We are convinced that one image is not worth more than a thousand words, but that one single word—Patxi Zubizarreta and Idoia Noble—is more thought-provoking if it is accompanied by an illustration—Jokin Mitxelena—or a photo—Gema Arrugaeta—and a song—Maddi Oihenart and Joserra Senperena—, with the help of Aitziber Alonso—the Association's Chairperson—and Izaskun Jauregi; it was an unforgettable performance geared towards the participants, who had come from all over the world. Aware of the difficulty in displaying our current situation in one hour, an exhibition of books translated from Basque into other languages was offered, including the DVD Flying in Paper created by Itziar Zubizarreta, and the book by Xabier Etxaniz and Manu López entitled Literatura infantil y juvenil vasca contemporánea (Contemporary Basque Literature for Children and Young Adults).

Translated by Sarah J. Turtle



BEHINOLA aldizkariaren harpidetza orria.

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bete ondorengo fitxa.

Izen-deiturak:.....

Helbidea:.....

Herria: Posta-kodea:.....

BEHINOLA aldizkariaren urteko kuota (20 €). 2 zenbaki urtean.

Euskadiko Kutzaren honako kontu-korrontean sartu:

3035 0242 68 242 0 00247 I

eta bidali fitxa ordainketa-agiriarekin batera Galtzagorri elkartera.

Galtzagorri elkartea. Zemoria, 25, behea. 20013 Donostia. Tel.: 943 471 487